Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

433

Azaroak15, 2022

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Euskaraldia
5 Etorbide zubiaren itxiera
6-7 Behobia-Donostia lasterketa
8 Kirolak: Trinkete Mundialeko txapeldunordeak
9 Kirolak: BiOnBe
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Emilie Filgueira
14 iGazte
15 Agenda

Behobia-Donostiak sortutako kirol festa irudietan

- Caser Cuidados
- Etxez etxeko languntza
- Osasun arreta (Fisioterapia, Erizaintza, Psikologia, Podologia, etc.)
- Teleasistentzia 24h
- Akonpainamenduak

Edozein egoera, iraupen, adin eta lekutan laguntzarako behar duzun arreta.

caser residencial

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - Irun

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161- HONDARRIBIA

900 103 348
caseresidencial.es

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1170

38500

57828

1922ko azaroaren 26an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak islatzen ditu. Aurreko zenbakietan gertatu bezala, aldizkariaren 378. alean aduanako agenteen lan baldintzak dira hizpide, kasu honetan agenteen kidetzarekin loturik. Olerkien atalean, Yolek emakumeen profilaz hitz egiten du. "De todo un poco" atalean, aldiz, askotariko gaiak lantzen dira: Iparralde etorbidea hobeto argiztatzeko eskakizuna, Irungo kirol zelaiaren eraikuntzaren prozesua eta Irungo onura etxean bizi diren neskentzat piano bat lortzeko nahia. "Por ahí" atalean antzeko zerbait gertatzen da, askotariko albiste laburrak argitaratzen baitira, besteak beste, atal berean Irungo Atsegiña edo eguraldiaz hitz egiten delako.

Kirolen atalean xehetasun osoz azaltzen da talde gipuzkoar eta katalanak jokatutako futbol partidua. Jarraian, Realaren hurrengo partidua zein izango den aipatzen da. Kirolei eskainitako atalaren amaieran berriz, Real Unión taldearen hurrengo erronkak zeintzuk izango diren aipatzen da. "Impresiones rápidas" atalean ere hainbat gai aipatzen dira. Esaterako, Gipuzkoako futbol federazioa, Santa Cecilia Eguneko ospakizunak edo merkatu alboan kokatua zegoen egunkarien salmentarako kioskoaren desagerpena. "Noticias" atalean, guardiako farmaziak zerrendatzeaz gain, Udal Musika Bandaren hurrengo kontzerturako prestatutako programazioa aurkezten da.

Hirugarren orrialdearen zati handi bat partitura batek betetzen du, "El Bidasoa" astekariari eskainitako pasodobleak, hain zuzen ere. Ondoren, "Del vivir de los pueblos" idatzian hirian hobetzeko dauden kontuak zerrendatzen ditu R. letrarekin sinatzen duen kolaboratzaileak. Udalarekin loturiko berrikuntzak biltzen dituen "Notas Municipales" atalarekin amaitzen da aldizkaria.

Argazkia:
1170: Regino Arizek zuzendutako Udal Musika Banda Aquilino jauregiaren aurrean (1902).

38500: Gaur egungo Genaro Echeandia plazaren eremua, erdian prentsa saltzeko kiosko bat, eskuinean Azoka zaharra eta Alhondiga, eta, ezkerrean, Echeandia etxea eta Fermin Kalbeton kalea.

57828: Iparraldeko etorbidea (jatorriz Frantziakoa deitua) ireki berritan (1914 inguruan).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Irun kulturalaren remix bat proposatzen du SoinuLaborrek

"Irun kultur remix" SoinuLabor programaren azken emaitza da eta azaroaren 20ra arte Oiasso Museoan egongo da ikusgai. DJ Makalak eta VJ TXO!? ikus-entzunezko artistek lankidetzan egin duten proiektuaren emaitza da. Gainera, ekimenaren garapenean Ezmugak elkarteak parte hartu du. Soinu-erakusketa honetan irudiak eta hiriko kulturarekin zerikusia duten pertsonaia historikoetan inspiratutako soinuak uztartzen dira.

Instalazioa asteartetan, asteazkenetan, ostegunetan eta igandeetan ikusi ahal izango da 10:00etatik 14:00etara, eta ostiraletan eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Proiektuaren deskribapena
Nola erremixatu daiteke hiri bat? Nola moldatu haren historia, esentzia eta arima musikaren eta irudiaren bidez? Galdera horietatik abiatzen da DJ Makala Irun hiria erremixatzeko xedea duen proiektu honetan. Edo gutxienez, hiriaren historiaren zati bat, Irungo kulturari lotutako 6 pertsonaiaren biografien ikus-entzunezko proiekzio baten bidez. Hauexek dira pertsonaia horiek: Iñigo Muguruza, María Juncal Labandibar, Luis Mariano, Menchu Gal, José María Zabalza eta Jorge Oteiza eta Itziar Carreño.

Disko-jartzaileek (DJ) eta bideo-jartzaileek (VJ) etengabe egiten dute lan nahasketarekin, eta beraien lana garrantzitsua da remixaren kulturan. Horretan, ez da besterik gabe beste artista batzuen obra hartzen eta berreraikitzen, aitzitik, kulturatik lan egiten da kulturarentzat. DJek eta VJek herri kulturako artefaktu kulturalak biltzen, berreraikitzen eta esanahi berriez hornitzen dituzte, hala kritika nola gorazarre egiteko.

SoinuLabor proiektuak
Soinu Labor proiektuaren bidez elkarrekin harremanetan jartzen dira artistak edo musika-taldeak eta hiriko eragile sozialak. Horrela, komunean dauzkaten puntuak aztertzen dituzte sortzaileek berrikuntzaren eta artearen bitartez jendaurrean erakusteko moduko emaitzak lortzeko: kontzertu bat, tailer bat, soinu-pieza bat... Helburua, azken batean, musikaren ikuspegi tradizional eta klasikoenetik aldentzen diren esperientziak sustatzea da. Soinu Labor Kultura arloaren musika-programazioaren ardatz estrategikoetako batean sartzen da, «lerro beltz» edo ibilbide esperimentala deiturikoan, hain zuzen. Xede nagusia da ildo urratzaile eta berritzaileak aktibatzea, esperientzien trukea eta legatu sakona lortzeko.

Eskema orokorra bost saiok osatzen dute, baina ez da egitura zurrun bat, baizik eta lan egiteko era malgu bat. Horrela, proiektu bakoitzari eta behar zehatzei egokitzen zaie, lankidetzako eta sorkuntzako prozesuak iraun bitartean horrelakoak sortzen dira eta. Lehen saioan, artistak eta eragileak elkar ezagutzen dute. Hurrengo hiruei «laborategi» dei dakieke, eta horietan bi aldeen lana koordinatzen da. Azken saioan trukearen emaitza aurkezten da, formatu tradizional edo urratzaileagoetan hezurmamitua, kasuaren arabera.

Aurreko lankidetzak
Programa 2016an antolatu zen aurreneko aldiz. Soinu Labor bat egin zen Ainara Legardonekin eta Irungo Marrazketa eta Pinturako Udal Akademiarekin, eta beste bat Kalakan taldearekin eta Ametsa Gazte abesbatzarekin. 2017ko martxoan, «Sforzando» ikuskizuna egin zen, Mafalda Soloioren eta Irun Hiria Musika bandaren eskutik, eta 2018an Xabier Erkiziaren eta Bidasoko Irratizaleen Elkartearen arteko kolaborazioa aurkeztu zen. Soinu Laborren azken edizioko protagonistak Audience eta Irungo Argazkilaritza Elkartea (IAE) eta Harrera Sarea izan ziren.

Azaroan zehar emakume migranteei buruzko erakusketa ikusi ahalko da CBAn

Azaroan emakume migranteei buruzko erakusketa ikusgai egongo da CBA liburutegian. Erakusketak "...eta bidean Irun. Begirada bat emakumezko migranteei" titulua darama eta Bostokphotok kooperatibako Gari Garaialderen lanak ikusi ahalko dira bertan. Erakusketa azaroaren 25arekin batera Emakumearen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren testuinguruan antolatu da. Lanak azaroaren 30era arte egongo dira ikusgai, CBA liburutegiaren ohiko ordutegian.

Irun paseko hiria da, mugan baitago. Telebistan urrun ikusten diren pertsona horiek Irunera iristen dira egunero-egunero, eta San Juan plazaren bazter batean elkartzen dira, Udaletxe parean, eta, Harrera Sarearen laguntza jaso eta gero, aurrera jarraitzen dute.

Ez da bide erraza. Ez da erraza gizonentzat, ez eta emakumeentzat ere. Baina emakumeek ere urratzen dute bide hori. Bakarrik, batzuetan; haur txikiekin, beste batzuetan; edo taldean, bidean ezagutu dituzten beste emakume batzuekin edo gizonen artean nahastuta, baina bidea egiten dute. Bidea gizonek irekitzen dutela pentsatu ohi dugu, baina ez da egia. Emakumeek ere bidea urratzen dute; gizonek bezala, aurretik anaia edo ahizpa nagusiren batek edo lehengusuren batek egindako bide berari heltzen diote, jaioterria uzten dute eta bizitza hobe baten bila abiatzen dira. Emakume batzuen asmoa da Europan bizitza horri ekin dioten senarrekin elkartzea.

Erakusketa honen xedea da bidea egiten duten emakume horiek ikusgarri egitea. Afrikatik irten eta Frantzia edo Europa iparraldeko beste leku batzuetara iritsi aurretik Irundik pasatzen diren emakume migratzaile horiek ikusgarri egitea da helburua.

Azken 3 urteotan Irundik pasatu diren emakume migratzaileei egindako argazkiek osatzen dute erakusketaren edukia. Haientzat guztientzat, pasatu diren eremuetako bat baino ez da izan Irun. Ez abiapuntua, ez helmuga. Erakusketa hau 10 argazkik osatzen dute, 100x67 cm-ko Dibon xafletan inprimatuta.

20 URTE
ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irungo Euskaraldiko sarea Belarriprestek eta Ahobiziek ehunduko dute

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra Irun Euskaraldian murgilduko da. Hamabost egunez euskaldunen hizkuntza ohiturak eraldatzeko ariketa sozialean parte hartuko du hiriak. Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, gizartearen gune guztietara iristeko helburua duena. Ariketan parte hartu ahal izateko beharrezkoa da euskaraldia.eus webgunean izena ematea eta Belarriprest edo Ahobizi rolen artean aukeratzea edo Arigune bat sortzea.

Ana Eguiazabal, Klaun-In elkarteko presidentea:

"Euskaraldian parte hartzea erabaki dut, hemengoa naizelako. Betidanik euskara erronka bat izan da niretzat, beti saiatu naiz hura ikasten. Euskara gure sustraiak eta, aldi berean, zerbait kulturala dela sentitzen dut. Iruditzen zait hizkuntza askotan politizatuegia egon dela, nahiz guztiok elikatzen eta batzen gaituen zerbait izan.

Klaun-In elkartetik Irungo kaleak dinamizatzeko aukera izan dugu ariketa kolektibo honen hasieran. 8 aldiz atera gara kalera, eta hainbat bideo ere egin ditugu rolen arteko desberdintasunak azaltzeko. Hirian euskararen erabilera sustatzen duen giro atsegina sortzea da helburua. Horrela, ekimena ezagutzen ez zuen jendea bertan parte hartzera animatzea lortu dugu. Gure esku-hartzeetan mota guztietako jarrerak ikusi ditugu, baina, oro har, harrera oso ona izan da.

Argi dagoena da ekimen atsegina dela. Uste dut euskara gurea den zerbait bezala ulertu behar dugula eta, horrela, ikasteko aukera eskaini behar diogula interesa duen orori. Horregatik uste dut euskararen aurrean dugun jarrerak atsegina izan behar duela."

Iñigo Lavado, sukaldaria:

"Nire ustez, lurralde baten nortasuna oso garrantzitsua da, eta sustraiak mantendu eta zaindu egin behar dira. Euskara gure nortasuna irudikatzen duten gauza horietako bat da, kulturarekin edo balioekin batera. Nik ez dut aukerarik izan euskara ikasteko, baina asko gustatzen zait jendeak nire inguruan euskaraz hitz egiten duenean eta ahal dudanean nire inguruan euskarazko elkarrizketetara batzen saiatzen naizenean.

Funtsezkoa iruditzen zait euskara ikasten ari diren pertsonekiko errespetuzko giroa egotea eta horregatik erabaki dut Euskaraldia ekimenarekin bat egitea. Bi norabideko proiektua dela iruditzen zait, besteen lekuan jartzera eta bere egoera ulertzera bultzatzen gaituelako.

Uste dut euskara zaintzeko betebeharra dugula. Nik, nire kasuan, ahal dudan guztia egin dut nire seme-alabek ikas eta balioets dezaten. Uste dut gureak diren gauzak zaintzeak gero eta gehiago laguntzen digula gure identitatea finkatzen. Gauzak sustraitik gorde behar dira eta oinarri horietako bat euskara da."

Victor Ortega, De Perita fruta-denda:

"Nik, nire bizitzan gaztelaniaz hitz egiten dut, oso euskara gutxi dakidalako. Hala ere, jendeak niri euskaraz hitz egiteko aukera baduela jakitea gustatuko litzaidake. Nik Euskaraldiaren aurreko edizioetan parte hartu dut eta benetan funtzionatzen duen zerbait dela konturatu naiz. Pegatina nire dendaren atean jarri eta identifikazio txapa erabili dudanetik, nire bezeroen zati batek niregana euskaraz jotzeko ohitura hartu du. Beraiekin hitz egiten dudanean, beti dut aukera esateko ez dudala ulertu edo esandakoa berriro errepikatzeko. Badira beren bizitza euskaraz bizitzea aukeratzen dutenak, eta ez litzaidake gustatuko nire erruz erabaki hori urratu behar izatea.

Uste dut oso erraza dela Euskaraldiaren parte izatea eta benetan ez zaigu ezer kostatzen. Gogoa jartzea besterik ez da behar. Uste dut horrelako ekimenek guztioi balioko digutela ikasteko, eta gutxieneko ahalegin batekin aldaketa handia lor dezakegula."

Shole Aguirre, Brasil gozotegia izandako denda:

"Euskaraldia dinamizatzeko kanpainan parte hartzea proposatu zidatenean ez nuen bi aldiz pentsatu. Euskara jakin edo behintzat ulertzen duen jendearen bila hurbildu ziren niregana eta euskararen alde edozer egiteko prest nengoela adierazi nien. Bi urtez euskaltegian egon naiz, baina hala ere nire euskara ez da oso ona. Dena den, ahal dudanetan euskaraz hitz egiten saiatzen naiz.

Nire jarrera aztertzen hasi naizenean konturatu naiz lehen hitza beti gazteleraz egiten dudala eta hori aldatu beharra daukat. Uste dut Irunen jende askori gauza bera gertatzen zaiola, euskara jakin arren beti gaztelerara jotzen dugula. Ez dit lotsarik ematen euskaraz ari naizenean hanka sartzea, bestela ikastea eta aurrera egitea ezinezkoa delako. Egitasmoan belarriprest bezala parte hartu dut. Nahiz eta poliki hitz egin, beti euskararen alde beharrezkoa den guztia egiteko prest izango nauzue."

Hitzetatik ekintzetara pasa dira herritarrak Etorbide zubiko muga irekitzeko

Etorbideko zubiaren baranda historikoaz gain, hesiak mugako pasabidearen atrezzo iraunkor bihurtu dira aspaldi. Herritar asko eta asko nazkatuta daude ordea mugaren itxierak migratzaileei eragiten dizkien oztopoez. Horregatik, "Mugak apurtu, zubiak eraiki" lelopean oinezkoentzako zubian mobilizazioa antolatu dute hainbat eragilek. Horrela, mugak zabaltzeko eskariari erantzunik ematen ez zaionez, Txingudi Badiako herritarrak Etorbideko zubiko hesiak desmuntatu eta mugak zabaltzeko antolatu dira.

Mugen zabalpena erreala izan zedin azaroaren 1ean mugako elkarteek mobilizazioa deitu zuten arratsaldeko 18:30etan. Herritarrak bi zutabetan antolatu ziren, bakoitza mugaren alde batetik abiatu zelarik. Mobilizazioaren adarretako bat Ficobatik abiatu zen eta bestea Hendaiako tren geltokitik. Horrela, mobizilazioaren bi zatiak Etorbidearen zubiaren muturretan elkartu ziren, muga ixten zuten hesiengatik banaturik. Hesiek eragindako banaketa fisikoak ez zuen luze iraun. Izan ere, aldarrikapenetatik ekintzara pasa ziren minutu gutxitan. Performancean mugako hesiak lotzen zituzten alanbreak moztu eta hesiak zubiaren alboetan baztertu zituzten, bata bestearen gainean botaz. Bidasoa ibaiaren gaineko azpiegiturak zubi hitzaren esanahi osoa berreskuratu zuen ordu batzuez, urak banatutako bi espazio lotzeko gaitasuna itzuli baitzioten mugako bizilagunek.

Herritarren nahia

Dozena bat eragile baino gehiagok babestutako ekintza izan zen. Besteak beste, Irungo Harrera Sareak, Ongi Etorri Errefuxiatuak, Bidasoa Etorkinekin, Etorkinekin-Diakite, Bizi eta La Cimade elkarteek, Ehun mugimenduak, Intziri talde feministak, Xuti Gazte ekimenak, EH Baik, Europe Ecologie-Berdeak eta Sortu alderdiek eta LAB sindikatuak parte hartu zuten deialdiaren zabalpenean. Mobilizazioa bat etorri zen Frantziak mugetako kontrolak beste sei hilabetez luzatzeko erabakia indarrean sartzen zen egunarekin. "Gehiengo batek eskatzen duena egin dugu"

> **"Gehiengo batek eskatzen duena egin dugu"**

Mugak zabaldu ostean, antolatzaileek ekintzaren zergatia azaltzeko komunikatu bateratua irakurri zuten euskaraz, frantsesez eta gazteleraz. Etorbidearen zubiaren erdian irakurritako testuan Irun eta Hendaiaren arteko mugaren itxierak bizimodu hobe baten bila datozen migratzaileen ihesaldian eragiten dituen oztopoak salatu ziren. Manifestuan esaten zenez, "migratzaileak bidean gehienez hiru egun egon daitezke Irungo Gurutze Gorrian, beraz, ahalik eta azkarren egin behar dute aurrera eta mugan Frantziako polizia zain daukate". Bertaratutakoek salatu zutenez, Frantziako poliziak, zubiak 24 orduz kontrolatzeaz gain, trenbideetan, autobus geltokietan eta edozein igarobideetan kontrolak egiten ditu.

Zubia 2021ean itxi zen azkenekoz eta ordutik egoera berean jarraitzen du. Ordutik kontrolak ezartzeko aitzakia ugari baliatu ditu Frantziako estatuak: terrorismo mehatxua, Covid-19a edo Ukrainako gerra. Kontrol arrazista horiek burutzeko aitzakiak sei hilero berritzen dira. Pasabidea Frantziako poliziaren kontrolpean dagoenetik gutxienez 9 migratzaile hil dira mugan. "Migratzaileek presio onartezina daukate eta arriskua gero eta handiagoa da", salatu zuten manifestuan. Santiago eta Nazioarteko zubietan zein autobidean kontrol iraunkorrak dauzka poliziak mugaren itxiera agindu zenetik. Etorbidearen zubia berriz, kontrol etengaberako posturik ez duenez, hesiz guztiz itxita dago oinezkoentzako pasabidea.

Agintarien eskariak

Azken hilabeteetan bi estatuen arteko muga zabaltzeko eskakizunak behin eta berriro entzun dira agintarien ahoetan. Eskakizuna bat eta bera izan arren, asko dira eskaria errepikatzen dutenak. Zubian irakurritako manifestuan azkenaldian muga irekitzeko eskaria egin duten politikarien eskakizunetako batzuk aipatu dituzte: "Horixe eskatu zuen urriaren 3an Euro Eskualdeko exekutiboak. Urriaren 5ean Urkullu lehendakariak eta Etchegaray jaunak hemen izan ziren zubiak irekitzeko eskatuz. Urriaren 22an Akitaniako Rousset presidenteak ere eskari bera egin zuen". Uztailean, berriz, José Antonio Santano Irungo alkatea izan zen Etorbidearen zubiarekin irekiera eskatu zuena. Izan ere, Irungo Udalak 2,2 milioi euroko aurrekontua baliatu zuen hiru urtez zubia berritzeko lanak egiteko. Zaharberritze lanen ostean, zubia 2020ko abuztuaren 28an berrireki zen. Eskariez gain, mugan bizi den egoera salatzeko ekintzak egin dira. Adibidez, orain dela bi hilabete Imanol Espinazo artistak perfomancea burutu zuen bertan, zubiaren alde batetik bestera oinez Melilla eta Irun arteko distantzia ibiliz migratzaileen sufrimendua islatu nahian.

Azaroaren 1ean herritarrek hesiak guztiz eraitsi bazituzten ere, azaroaren 2ko goizean zubia hesituta agertu zen berriro. Etorbidearen zubiaren irekiera nahi baino laburragoa izan zen. Dena den, argi geratu da herritarrek mugako egoerarekiko eta itxierarekiko sentitzen duten desadostasuna. Azaroaren lehen eguneko ekitaldiaren amaieran mugak ireki eta zirkulazio askatasunaren aldeko aldarriak entzun ziren. Orain, ikusteko dago aldarrikapenak errealitate bihurtzen ote diren.

Behobia eta Donostia arteko kilometroak zirraraz bete dira berriro

Azaroaren 13an Behobia Donostia lasterketak Gipuzkoako mugako hiria eta lurraldeko hiriburua lotzen dituen festaren edizio berri bat izan zen. Azaroko bigarren asteburuak 30.000 korrikalari bildu zituen. Parte-hartzaile batzuentzat helmugara lehen postuan iristea izan da helburua. Besteentzat, berriz, lasterketako metro bakoitzean kirolaz gozatzea. Lasterketaren 57. edizioan "gozatu" lemak eraman ditu korrikalariak Gipuzkoako hiribururaino.

Probaren 57. edizioa izan da



mr electric systems ®

Electric Systems-ekin zerbitzu elektriko guztiak eskura izango dituzu

- Instalazio elektrikoak
- Neurrira egindako argien azterketak
- Domotika eta automatismoak
- Bideozaintza eta alarmak
- Ahotsa eta datuak
- Proiektuak eta legeztatzeak
- Mantentze lanak
- Ekitaldiak

mrelectricsystems@gmail.com - 669 302 312

aiadek Pinturen fabrikazioa

- Kalitate goreneko produktua
- Produktu iraunkorrak
- Irunen egindako pinturak
- Koloreen erreplikan zehaztasuna

Gabiria Kalea 60-62. Ventasko Industrialdea - Irun - 943 633 946

Profesionalak - Partikularrak - Banatzaileak

Ander Monserratek eta Unai Sagarzazuk Trinketeko Mundialeko txapeldunorde izatea lortu dute



“Lortutakoa izugarria eta oso polita izan da”
Ander Monserrat, Trinkete Mundialeko txapeldunordea

“Finalera iristeko ilusioa beti hor dago, baina badakizu oso zaila izango dela”
Unai Sagarzazu, Trinkete Mundialeko txapeldunordea

Ramuntxo Trinketeko Ander Monserrat eta Kurpil kirolak elkarteko Unai Sagarzazu kirolariek Munduko Pilota Txapelketan parte hartu dute. Txapelketan zilarrezko domina eskuratu dute trinketeko gomazko paleta modalitatean Sebastian Martínezekin batera. Monserratek eta Sagarzazuk txapelketaren osteko sentsazioak azaldu dituzte.

Pozik zaudete txapelketan lortutako emaitzarekin?
Ander: Bai, egia esan, urteak daramatzagu trinketean jolasten eta azkenean txikitatik amestutako gauza bat lortu dugu, hau da, mundialeko finalera iristea. Beraz, lortutakoa izugarria eta oso polita izan da.

Zenbat denbora eman duzue txapelketa hau prestatzen?
Unai: Ekainean hasi ginen selekzioarekin entrenatzen. Egia da urte osoan zehar trinketean jokatu arren, txapelketak jokatzeko hautaketak ekainetik irailera egiten direla. Irailean jakinarazi ziguten zeintzuk izango ziren mundialean lehiatzeko aukera izango zuten jokalariak. Beraz, irailetik urrira hirurak elkarrekin entrenatzen ibili gara.

Klub ezberdinetako kirolariak izanda, zaila izan da entrenamenduak bateratzea?
Ander: Unaik esan duen bezala, ekainetik aurrera bost jokalari ibili gara selekzioarekin batera entrenatzen. Aukeratuak gu hirurok ginela jakin genuenean, entrenamenduetako prestaketa guztiz aldatu zen. Horrela, pixkanaka entrenamenduak egokitu genituen aurkarietan pentsatuz Sebasen laguntzarekin estrategia zehatzak prestatzeko.

Aurkariak ezagutzeak txapelketen prestaketan lagundu dizue?
Unai: Gure multzoan bi selekzio genituen, Argentina eta Estatu Batuak. Argentinaren aurka bagenekien ez genuela zereginik. Estatu Batuen kontra aldiz, irabazteko aukerak ikusten genituen, nahiz eta jokalariak aurretik lehenengo mailan ibilitako bi argentinarrak izan, gu baino helduagoak zirelako. Beraz, estrategia partidu luze bat jokatzea izan zen, guk irabazteko aukera gehiago izateko.

Nolakoak izan ziren finalera iritsi aurretik jokatutako bi partiduak?
Ander: Argi genuen borrokatu beharreko partidua Estatu Batuen aurkakoa zela, partida hori galduz gero txapelketa jokatzeko aukera guztiak galtzen genituelako. Horregatik, aurretik partidua oso ondo prestatzen saiatu ginen. Beraz, partida irabaztean poz handia sentitu genuen, baina ezin izan genuen gehiegi ospatu hurrengo egunean finalerdia jokatu behar genuelako. Beraz, garaipena eskuratu bezain laster hurrengo partiduan pentsatzen hasi ginen.

Finalerdian berriz, Mexikoren aurka jokatu zenuten?
Unai: Astelehenean Frantziak eta Mexikok partidua jokatu zuten eta suposatzen genuen partidu horretatik gure finalerdietako aurkaria aterako zela. Gure harridurarako Mexiko izan zen irabazlea, izan ere, Frantziaren aurka jokatzea nahiago genuelako aurkariak hobeto ezagutzen baititugu. Mexikori irabaztea lortu genuenean ere sentsazioa izugarria izan zen.

Behin bigarren postua bermatuta, nola aurre egin zenioten Argentinaren aurkako partiduari?
Ander: Mexikori irabazita behintzat bagenekien bai edo bai finala jokatuko genuela. Lehen aldiz mundialeko finala jokatzeko aukera genuen eta hori jada oso berezia zen guretzat. Izan ere, duela 30 urte jokatu zuten irundar batzuek azkeneko aldiz mundialeko final bat. Gainera, kasualitatez Unairen aita izan zen final horretan zilarrezko domina lortu zuen jokalarietako bat. Beraz, maila horretaraino iristea izuragarria da jada. Zaila izan arren, finalean ere dena eman genuen, baina dagoeneko zailena lortua genuenaren lasaitasunarekin.

Txapelketa finaleraino iristeko helburuarekin hasi zenuten?
Unai: Gure helburua beti Munduko Kopetan eta Mundialetan finalaurrekoetan sartzea izan da. Behin haraino iritsita badakizu finala jokatu edo behintzat hirugarren postua lortzeko aukera izango duzula. Finalera iristeko ilusioa beti hor dago, baina badakizu oso zaila izango dela.

Egindako lan guztiaren emaitza jasotzerakoan pozik sentitu zineten?
Ander: Bai, hilabete asko eman ditugu txapelketa hau prestatzen eta lan gogorra da. Izan ere, entrenamenduak gogorragoak dira eta familiarekin egoteko denbora gutxiago duzu. Prestaketa gogor horiek gainditu ostean horrelako garaipen garrantzitsu bat lortzen duzunean sentsazioa oso polita da.

Munduko txapelketa bukatuta, zeintzuk dira zuen hurrengo erronkak?
Unai: Oraindik lortutakoa barneratzeko prozesuan gaude, baina ez dugu horretarako denbora gehiegirik izan. Oraintxe Iparraldeko Txapelketa jokatzen ari gara eta jarraian Frantziako eta Gipuzkoako txapelketak datoz. Beraz, laburbilduz, urte guztian zehar partiduak ditugu. Egia da selekzioarekin hemendik lau urte barru Argentinan San Luisen jokatuko den mundiala dugula buruan, baina momentua iritsi arte ez gara horretan pentsatzen hasiko.

BiOnBe plataformak eskualdeko kirolariak eta jarduera fisikoa bultzatzen dituzten ekintzak elkartuko ditu



“Webgune bakar batean eskura izango duzu eskualdeko kirol ekintzei buruzko informazio guztia”

Igor Emery, BiOnBe plataformaren bultzatzailea

Igor Emeryk, beste kide batzuen laguntzaz, BiOnBe plataforma sortu du. BiOnBe.eus plataformaren bidez kirola, bizimodu osasuntsua eta garapen pertsonala sustatzeko komunitatea sortu nahi da. Bertan eskualdeko kirol klubek eta elkarteek antolatutako jarduerak ezagutu eta kirol proposamen ezberdinak ezagutzeko aukera egongo da.

Eskualdean kirola maite duen jendearentzako aplikazioa dela esan daiteke?
Bai, plataforma digital bat da. Edonolako jarduera fisikoa egiteko aukera duen eta gure bailara maite duen jendearentzat pentsatua dago. Esan dezakegu inguruan dugun guztia ezagutzeko eta berrezagutzeko beste modu bat dela. Proiektua lantzen hasi nintzenean aurretik ezagutzen ez nituen gauzak aurkitu nituen. Edukia Bidasoaldeko biztanleentzat zein bisitarientzat tresna erabilgarria izatea espero da. Eskualdean kirol modalitate eta elkarte asko dauzkagu jarduera fisikoaren inguruko zerbitzuak eskaintzen dituztenak. Gainera, bertako udalek kirolarekin loturiko proiektu asko dauzkate. BiOnBe-ren bitartez kirolaren presentzia hori indartu nahi dugu, jendearentzat eskaintza guztia ezagutzea errazagoa izan dadin.

Zer aurkituko dute erabiltzaileek plataforma berri honetan?
Batetik, BiOnBe.eus webgunea daukagu. Webgunean plataforma zer den azaltzen da, hau da, inguruan dauzkagun kirol aukera guztiak ezagutzeko aukera eskaintzen duen ataria dela esan dezakegu. Hortik, BiOnBe.com plataformara sartu gaitezke. Garrantzitsuena plataformaren izaera da, plataforma soziala baita eta klubekin edo beste eragileekin sinergiak sortzeko aukera eskaintzen die erabiltzaileei. Azken batean hori da gure nahia; bakoitzak bilatzen duena edo hobekien egokitzen zaiona aurkitzeko aukera izan dezala. Kirolaren bitartez ongi sentitzeko proposamenak bildu nahi izan ditugu. Gainera, garrantzitsua iruditu zaigu erabiltzaileei informazio hori guztia partekatzeko aukera ematea, plataforma aberasteaz gain, jendeari bere kirol jarduera gogokoena aurkitzea erraztuko diolako.

Eskualdeko kirol elkarteekin eta klubekin harremanetan jarri zarete informazioa biltzeko?
Hasiera batean plataformara batu diren kirol elkarte guztien alboan egongo gara elkarrekin lehenengo urrats horiek egiteko. Hala ere, profil bat sortzea eta bertan informazioa partekatu ahal izatea oso erraza izango da. Jendearentzat erabilgarria eta irisgarria izango den plataforma bat izatea nahi dugu. Bertan eskualdean antolatzen diren txapelketa eta kirol ekitaldien informazio guztia bilduko da. Plataformaren maneiua erraza izatea nahi dugu, urrats pare batean kirolaren sare sozial honetan ekarpenak egin ahal izateko modua eskainiz. Beraz, lehenengo jendeak BiOnBe zer den ulertzea nahi dugu, gero beraien esperientziak partekatzen hasi daitezen. Horrela, behar dugun guztia eskura izango dugu urrtas gutxi batzuk jarraituz. Plataforma sortu dugu jada eta orain azken ukituak ematen ari gara. Gainera, inguruko klubekin eta erakunde publikoekin harremanetan gaude, baina orain arte jasotako erantzunak eta balorazioak oso onak izan dira. Pandemiak erakutsi digu norberak ondo sentitzeko beharra duela, baina bakoitzak behar hori asetzeko bide ezberdinak aurkitu ditzake, erabaki pertsonala baita. Kirolaren esperientzia hobetzea eta erraztea lortzen baduzu erakargarriagoa da.

Beraz, plataformaren helburuetako bat da eskualdeko biztanleen artean bizi estilo osasuntsua sustatzea?
Bai, ongizatearen sustapena oinarrizko helburuetako bat da eta horrela laburbildu daiteke aplikazioaren funtsa. Iaz BiOnBe-ren bitartez Ficoban ongizatearen, kirolaren eta osasunaren inguruko jardunaldia antolatu genuen. Eragile guztiak bertan egotea funtsezkoa da, hau da, besteak beste, kirolarekin, erakunde publikoekin, osasunarekin edo turismoarekin loturikoak. Esaterako, turismoarekin kirol iraunkorreko jarduerak sustatu daitezke, hots, pertsonentzat osasuntsua den turismoa bultzatzea eta hemen inguruan horretarako aukera asko dauzkagu.

Beste helburuetako bat Txingudi badia eta Bortzirietako herritarrak bateratzea da, ezta?
Hori da eta hala erakusten ahalegindu ginen iaz Ficoban egindako jardunaldian. Gure lurraldean kirolarekin loturiko enbaxadore asko dauzkagu, goi mailako kirolariez gain, beste maila batean ibili arren, eskualdea bultzatzeko eta ezagutarazteko egiten duten lanarengatik garrantzitsua den jendea ere badugu. Hortaz, enbaxadore sare handi hori izatea garrantzitsua iruditzen zaigu eta BiOnBek beraien babesa lortu du. Bidasoaldean zein inguruan pertsona oso ezagunak dauzkagula aprobetxatu behar dugu, gainontzeko herritarren ongizatea lortu ahal izateko.

Erabiltzaile moduan informazioa jasotzeko zer egin behar da?
BiOnBe.com webgunean sartzea da egin beharreko gauza bakarra. Bertan datuak idaztea eta profila sortzea izango da hurrengo urratsa. Horrela sare sozialaren parte izango zara eta gainontzeko erabiltzaileek egindako ekarpenak kontsultatu eta partekatu ahalko dituzu. Horrela, beste erabiltzaile arruntez gain, klub eta kirol elkarteen ekitaldien inguruko informazio guztia jasoko duzu. Beraz, webgune bakar batean izango duzu eskura informazio guztia. Gainera, zuk zeuk kirol ekintzak antolatzeko aukera izango duzu, horretarako deialdi bat zabaldu beharko duzu plataforman kirol jarduera mota, eguna eta ordua zehaztuz. Horrela aberastuko dugu BiOnBe.

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa XXII. FICAB azaroaren 14tik 19ra ospatuko da

Gure inguruko norbaitek FICAB zer den galdetzen badu... azaroaren 14tik 19ra AmaiaKZra, Aquariumera edo Tabakalerara joanda, edo online aukera baliatuta,ikus ditzala film arkeologikoak! Eta ondore harriduraz "Zine Arkeologikoa?" botatzen badu... are eta gogotsuago esan film hauek ikustera etortzeko! Bai. Irunen ospatzen den jaialdi honetaz harro egon gaitezke, izan ere, hogeita bi edizio egiteaz gain zine arkeologikoaren erreferente bat da Euskal Herrian, Espainian eta baita nazioartean ere.

Jaialdi honi esker, mundu osoan arkeologiako hainbat indusketa eta ikerketen inguruan egiten diren film onenen aukeraketa ikusteko parada eskaintzen da. Eta jatorrizko bertsioa mantenduz, azpitituluak ipintzen zaizkie aurten ikusiko ditugun 32 filmei. Hezkuntza sailekoak euskarazko azpitituluekin ikus daitezke eta sail ofizialekoak gaztelaniazkoekin. Horretaz gain, eta bereziki ikusmen zailtasunak dituztenei zuzenduta, ONCErekin elkarlanean AUDESC sistemarekin "ikus-entzun" ahal izango da Javier Truebaren El Sueño de la vida Eterna, filma. Gainera, Trueba bera etorriko da filma aurkeztera.

Esan bezala, azaroaren 14tik 19ra Irungo Amaia KZko areto nagusian eta hitzaldi aretoan filmak aurrez aurre gozatzeko aukera izango dute ikusleek, bai eta Xabier Peñalver adituaren solasaldian parte hartzeko aukera ere. Badira urte batzuk dagoeneko, urpeko arkeologiari buruzko filmak Donostiako Aquariumera bidaiatzen dutela, eta elkarlan oparo honek egoitza ezin hobea eskaintzen die, itsasoaren azpiko altxorrak erakusten dituzten filmei eta horiek aurkeztera joango diren adituei. Donostian ere, Tabakalerarekin elkarlanean gazteei zuzendutako saio bat egingo da asteazken goizean.

Aurten baina bi berrikuntza azpimarragarri ditugu FICABen. Aurten arkeologiak memoria historikoari, kontakizun berriak egiteko eskaintzen dion laguntza, atal berri baten bidez ikusi ahal izango da. Larunbat goizean, azaroaren 19an goizeko 11:00etan Amaia KZn Giza Eskubideak eta Memoriaren inguruko bi film proiektatuko dira, bata Brasildarra eta bertako esklaboei buruzko film laburra da eta bestea berriz, gure gerra zibileko fosen indusketetan egin den lanari buruzkoa.

Eta aurtengo bigarren berrikuntzan gazteak dira protagonistak. FICAB jaialdiak ARK-MO izeneko egitasmo bat jarri du martxan, hau da ARKeologia MObilekin egindako filmen bidez erakutsia. Gazteak, zinema, ondarea, kulturaren zabalkuntza, hainbat lurraldetako ikastetxeak, sormena eta talde lana dira, besteak beste, egitasmo honen bidez bultzatu nahi ditugun gai nagusietako batzuk. Gure inguruan dauden lurralde ezberdinetako ikastetxeekin aritu gara lanean, modu esperimentalean martxan jarri dugun egitasmo honetan. Irungo, Berako eta Ziburuko ikastetxeak jo ta ke aritu dira, bost minutuko luzapena duten filmak sortzen, mugikorrarekin, Beren ingurunetik hurbil dauden arkeologia edo historia ondarea sustatzeko eta ikus-entzunezko baten bidez partekatzeko asmoz egin dute. Era berean, Txileko Los Andeseko ikasle talde bat ere gehitu da gure egitasmora, euren aberastasunak guri erakusteko. Gainera, ikastetxe bakoitzeko sortzaileak etorriko dira saio bakoitzera euren filmak aurkeztera.

Aurkezpenak, gonbidatuak, solasaldiak, filmak, Amaia antzokiko zine aretoko sarreran antolatu den Photocall bitxia, klausura ekitaldi mundiala BIZINEMA taldeko kideen eskutik, sariak, etab. Hainbat kontu sei egun berezi hauetan! Baina ezin amaitu nazioarteko epaimahaikideak aipatu gabe: Iziar Ituño aktore ezaguna izango da epai-mahaikide burua, eta berarekin batera Amaia Arranz arkeobotanikan aditua, Carlos Coros Txileko Los Andes Museo Arkeologikoko zuzendaria, Fernando Pérez Azkuna-Alhondiga Kutur Zentroko zuzendaria eta Mertxe Urteaga, arkeologoa eta FICAB jaialdiaren sortzailea.

Azkenik, programa osoa jaialdiaren webgunean ikus daiteke: www.ficab.org

Eta lehiaketako filmak online ikusteko jaialdiak irauten duen egunetan zehar tv.festhome.com atala bisitatzeko aukera ere badago. FICAB jaialdira eskainitako atalaren barruan filmak bi zatitan banatuak ikusiko dituzu. Alde batetik, hezkuntza saileko filmak eta bestetik, jaialdiko sail ofizialean lehiatuko direnak.

Azken ohar bat: lagundu gurea den zinemaldi altxor hau zabaltzen! Eta norbaitek FICAB zer den galdetzen badizu... esan zinemara etortzeko. Eskerrik asko!

OIASSO MUSEOA

LEKAENEA LH4



DENBORA-PASAK

7 hitz: Arrainak

P	X	I	E	R	R	E	S	O	I	L	O	A	T
J	N	H	U	W	W	K	O	S	L	K	Y	R	A
P	G	K	K	G	E	Q	R	C	C	U	R	W	L
K	I	B	W	D	G	D	Q	Q	K	C	P	N	X
R	K	E	Q	R	G	P	E	A	A	P	Q	I	F
A	P	R	R	Q	B	K	I	Q	I	I	E	P	A
B	V	D	E	X	L	T	S	G	S	U	Y	U	A
A	Y	E	U	R	R	A	S	U	R	U	J	F	C
R	G	L	C	Q	Y	B	E	J	Q	R	O	W	I
R	M	A	Y	M	J	D	I	V	X	M	K	W	M
O	F	Y	R	X	Q	M	G	Z	H	P	B	S	F
K	J	H	H	X	M	I	I	D	A	Z	A	K	Q
A	U	T	X	I	T	X	A	R	R	O	N	I	I
F	O	N	S	O	O	J	Q	P	A	N	E	K	A

Urraburu, txitxarro, krabarroka, lupia, paneka, berdela, erreboiloa.

	5		4			6		
		9		5		1		8
				7		5		
6				8		3		
	3	5		9		7	6	
				6				
5							7	
4			6	1			2	5
2	6		5	4		9		

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Pazingillia eta baserritarra

Baserritar bat joantzen pazingille baten itziera eta erosi zuen pazi aundi bat, gero pagatzeko.

Nola entzun beiñ ee pagatzen, pazingillak eramantzuen baserritarra juezan aurrera.

Eta juramentua in da gero ukatu zun zorra au.

Jetzirik juzgautik, pazingillak esantzion:

- Zuk galdu duzu gaur onrra eta anima.

- Eta zuk paziya - erantzun zion baserritarrak.

Irungo G.O.S (kaletarra) 62 urteko gizonari jasoa. Irunen gertatu zen eta bere aita irundarrari ikasi zion. Zuzenean hartua (1960-VI-15).

(El Bidasoa, 1960-VII-30)

Esaerak

Gizona eta otsua

zenbat eta itsusiyagua

ainbat eta ederragua.

Irungo Luzio Valverde Gal 89 urteko gizonari jasoa (1960-I-30). Bere ama Juana Gal Gainza irundarrak erakutsi zion.

(El Bidaso, 1960-IV-2)

BELASKOENEA LH5

Egizkitza eskolako beste ikasleekin bideodelan gure hausnarketak partekatu ditugu, eta bide batez hobetzeko proposamenak azaldu egin dira.

Oso esperientzia polita izan da, beste eskolako ikasle batzuk ezagutu ditugu eta beste proiektu batzuetan beste eskolakoekin ere harremanetan jartzea gustatuko litzaiguke.

Emilie Filgueira, artista:

"Niretzat gauza bera da nire gorputzaren gainean edo paper baten gainean margotzea"

Martindozenea Gaztelekuak Emilie Filgueira artistaren lanak hartuko ditu abenduaren 3ra arte. Gazteartean Expo programaren bitartez artista irundarrak bere sorkuntzak erakusteko aukera topatu du. Emiliek erretratuak eta bodypainting teknikaz eginiko makillajeak bildu ditu "El color de tu mirada" tituluarekin.

Noiz hasi zinen arteaz interesatzen?
Haur hezkuntzan nengoenean hasi nintzen marrazten. Hainbesteraino, non eskolatik deitu baitzieten gurasoei, gainerako haurrek aurpegi bat margotzeko bi puntu, zirkulu bat eta irribarre bat erabiltzen zituzten bitartean, nik jada betileak, bekainak, hortzak eta abar marrazten bainituen. Beti gustatu izan zait pertsonak marraztea, bereziki emakumeak, nahiago izan baitut jendea erretratatzea paisaiak marraztea baino. Eskolan arte plastikoetara joatea gustatzen zitzaidan, baina ez naiz inoiz marrazketa edo pintura eskoletara joan. Pixkanaka-pixkanaka, nire erretratuak hobetzen joan naiz, eta 14 urterekin, gutxi gorabehera, erretratu errealistak lapiz egiten hasi naiz.

Nola lortu duzu Gazteartean Expo programan parte hartzeko aukera?
Irungo Udaleko Gazteria sailetik jarri ziren nirekin harremanetan, Instagrameko nire kontuen bidez ezagutu baininduten. Bertan, Irungo beste neska bat jarraitzen dut, Micrisantemo, eta bera izan zen kultura arlokoei nire sorkuntzei buruz hitz egin ziena. Nire erretratuak ikusi zituzten, bai arkatzez eginak, bai kolorez margotuak, eta horrela konturatu ziren horietaz gain, makillaje artistikoko lanak ere egiten ditudala. Txikitatik asko gustatu zait makillatzea eta mozorrotzea pertsonaiak sortzeko. Horregatik erabaki genuen erakusketan bi lan ildo horiek erakustea.

Artista hasiberrientzat erraza da erakusketak egiteko modua topatzea?
Nik ez nekien Irunen horrelako programarik zegoenik. Kultura arloaren proposamena iristen zaidanean, ustekabean harrapatu ninduten, baina proposamenak ilusio handia egin zidan. Iruditzen zait programa hau aukera paregabea dela Irungo sortzaile guztientzat, eta oso ondo dagoela gazteentzat. Nik orain arte ez nuen ezagutzen, eta uste dut gehiago bultzatu beharko litzatekeela mundu guztiak ezagut dezan.

Zergatik erabaki duzu erakusketari "El color de tu mirada" titulua ipintzea?
Ezinbestekoa iruditzen zait izenburuan kolore hitza agertzea, garrantzi handia ematen baitiot koloreari nire lanetan, makillajean edo argazkien edizioan. Kontrasteak eta argiak asko zaintzen saiatzen naiz. "El color de tu mirada" izenburuaren bidez, margotzea gustatzen zaidana islatu nahi izan dut, begiei garrantzi handia ematen diedalako, erretratu bati bizia ematen diotenak baitira.

Zer ikus daiteke Gaztelekuko erakusketan?
Erakusketa bi zatitan banatuta dago. Beheko solairuan nik egindako makillajeak daude, eta, horretarako, bakoitzaren argazki adierazgarri bat aukeratu dut. Batzuetan nire argazkiak dira, edo lan egiteko erabili ditudan modeloenak. Lan horietan, nire ustez, sekretua ez dago makillajean bakarrik, baita argazkia nola atera den ere. Lehenengo solairuan, aldiz, nire marrazki tradizionalenak daude ikusgai, lapitzez edo pinturaz eginak. Beraz, behean daude lan digitalak eta goian tradizionalenak.

Erraza izan da erakusketa berean izaera desberdineko lanak biltzea?
Bai, oso. Niretzat makillaje bat mihise baten gainean margotzea bezala da, modu berean lan egiten dudalako. Jendea erakusketa ikustera hurbiltzen bada, lehen solairuko lanekin ikusiko dute ez direla bodypainting makillaje arruntak, artistikoagoak direla, kolore urtuagoekin edo akabera abstraktuagoekin. Niretzat gauza bera da nire gorputzaren gainean edo paper baten gainean margotzea, eta horregatik emaitza ez da hain desberdina.

Koloreak garrantzi handia al du erakusketa horretan?
Hori da. Argazki batzuetan kolore bakarrarekin lan egiten dut, adibidez, itsas urdinarekin edo beltzarekin. Beste batzuetan, ordea, kontraste handiak erabiltzea erabaki dut, kolore berdeak eta gorriak agertzen diren irudietan adibidez, kolore osagarriak baitira. Marrazkiekin antzeko zerbait gertatzen da.

Jendeak bodypainting lanen atzean dagoen lan artistikoa aitortzen du?
Ez da ahaztu behar horrelako sorkuntzak egiteko pintatu egin behar dela eta berezitasun bakarra da lana gorputzaren gainean egiten dela. Makillajean ere koloreekin eta lerroekin jolastea da kontua, eta, horrela ikusita, lan artistikoa argi ikusten da. Jendeak askotan ez du ulertzen argazki bat hartzeko ez dela botoi bat bakarrik sakatzen. Funtsean, argia, atzeko aldea edo ostean datorren edizioa ere lantzen dira, eta gauza horiek guztiak azken emaitzaren parte dira.

Erakusketa honetan badago zuretzat esanahi berezia duen lanen bat?
Asko daude, zaila da bat aukeratzea. Gehien gustatzen zaidana Carol filmeko Cate Blanchetten profilezko erretratua da, telefonoz hitz egiten duen bitartean. Atsegin dut, aldi berean oso erretratu errealista eta oso abstraktua delako. Ilusio handiz egin nuen lan hori, eta maitasun handia diot oraindik.

Gustatuko litzaizuke orain arte erabili ez duzun beste teknika artistikoren bat probatzea?
Bai, pastela margotzen probatzeko gogoa dut, bai pastel lehorra, bai pastel koipetsua. Denbora daramat probatzeko gogoz, baina ez dut inoiz momentua aurkitzen, ezagutzen dudana erabiltzera jotzen dut beti, niretzat erosoagoa delako.

Zure burua artista lanetan ikusten duzu etorkizunean?
Izugarri gustatuko litzaidake, betidanik egin izan dudan zerbait baita. Baina ez da gauza bera zaletasunagatik egitea edo horrela bizimodua atera behar izatea. Ni oraintxe bertan higiezinen enpresa batean ari naiz lanean eta pilates klaseak ematen ditut. Izan dezakedan denbora libre gutxian margotzen dut. Artista profesional bihurtu ahal izateko, aukera handi bat izan beharko nuke, nire egungo zereginetako batzuk alde batera utzi ahal izango nituela bermatzeko.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Ispilu tailerra

Gaztelekuko tailer eta ekintzen barnean, GazteArtean zerbitzuak, Asexora-T zerbitzuarekin batera, ispilu tailerra proposatzen dute. Tailerra Martindozenea Gaztelekuan egingo da azaroaren 26an arratsaldeko 17:30ean. Ispilu aurrean jartzeak dakarrenaz hitz egingo da tailerrean.

Gaztelekuaren webgunean tailer honi eta Martindozenea Gaztelekuan antolatzen diren beste ekintzei buruzko informazioa aurkituko duzue.

Victoria Moonen antzezlana

Martindozenea Gaztelekuan azaroaren 18an Victoria Moon aktorearen "La maleta de las olvidadas" antzezlana ikusteko aukera izango da. Emanaldia arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta gazteleraz izango da.

Bertan, mundua aldatu baina gaur egun ahazten goazen emakumeak gogorarazteaz gain, Victoria Moonek maleta barruan daramatzan gauza guztiak ikusiko ditzute ikusleek. "Maleta hau boterez bete gaitzakeen objektuz beteta dago. Elkarrekin irekiko dugu?"

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Azaroaren 25ean Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen da. Noiz eta zergatik finkatu zen egun hau? 1999an finkatu zen aldarrikapen egun bezala lehen aldiz. 1960. urteko azaroaren 25ean, Dominikar Errepublikako hiru ekintzaile politiko hil zituzten (Mirabal ahizpak). Urte horretatik aurrera, emakumeen taldeek eta mugimendu feministak data hori hartu zuten emakumeenganako indarkeria sexistaren aurkako egun bezala.

Irungo Martindozenea Gaztelekuan data berezi hau ospatzeko ekintzak antolatuko dira azaroaren 25eko arratsaldean 17:00etatik aurrera.

Buztin tailerra

Noiz: Azaroaren 19an.

Non: Martindozenea Gaztelekuan.

Ordua: 17:30etan.

Gero, parte-hartzaileek sorkuntzekin erakusketa bat egingo da Gaztelekuan bertan.

Komiki erakusketa CBAn

CBA Udal Liburutegiak azaroaren 25etik abenduaren 10era Euskadi Fantastikoa komiki erakusketa hartuko du. Erakusketa asteartetik ostiralera 9:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara bisitatu ahalko da. Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren 33. astearekin loturiko erakusketa da. Erakusketa bisitatzeko sarrera doakoa izango da.

Erakusketa honetan, Arantza Sestayoren fantasia errealistako ilustrazioen unibertso bikaina bisitatu daiteke. Pintura prerrafaelistaren eta Art Nouveauren eraginak jaso dituen artista honen erakusketan zehar haurrentzako klasikoetan oinarritutako fantasiazko ilustrazioetatik –Edurnezuri edo Alizia bezalako pertsonaia ezagunekin– hasi eta A Song of Ice and Fire 2022ko egutegi ofizialerako ilustrazio zoragarrietaraino –Daenerys, Sansa edo Jon Snow pertsonaia karismadunekin– gozatu ahal izango da. Bidaian zehar bere unibertso gotikoa ere bisitatuko du ikusleak, bere pertsonaia erromantiko, malenkoniatsu eta sentsualekin.

Ikasketa gelako ordutegi aldaketa azterketa garairako

Azterketa garaia heltzear dela eta, 2022ko azaroaren 5etik 2023ko otsailaren 12ra bitartean "Carlos Blanco Aguinaga" Udal Liburutegiak bere ikasketa gelaren ordutegia zabalduko du. Horrela, epe horretan ikasketa gela ondoko ordutegian egongo da irekia:

Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 20:00etara.

Larunbata: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.

Igandea: 9:00etatik 13:00etara.

Ordutegi bereziak:

– 2022ko abenduaren 7an: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.
– 2022ko abenduaren 24 eta 31n: 9:00etatik 13:00etara.
– 2023ko urtarrilaren 7an: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.
– Abenduaren 6, 8 eta 25ean: Itxita
–Urtarrilaren 1 eta 6an: Itxita

Gainontzeko zerbitzuek ohiko ordutegia jarraituko dute.



AZAROAREN

17an

KM0ko kontzertua

Zer: Iune Bermejo artista irundarraren kontzertu akustikoa.

Non: Irungo Atsegiñan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doan.

18an

Tailerra

Zer: "Mugalariak" familientzako sormen tailerra Luis Vallet-i buruz Maushaus arkitektura tailerraren eskutik.

Non: Elitxu Auzo Elkartean.

Ordua: 18:00etan.

Oharra: Aurretiazko izen-ematea.

20an

"Irun Hiria" Musika banda

Zer: Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 12:30ean.

Prezioa: Doako sarrera.

23an

Urteurrena

Zer: Pio Barojaren jaiotzaren 150. urteurrena.

Non: Zabaltza plazan.

Ordua: 18:00etan.

Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, CBAn.

26an

Familientzako ikuskizuna

Zer: "Munduari iitzulia 80 egunetan" ikuskizuna Glu Glu konpainiaren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Prezioa: 5 euro.

Hizkuntza: Euskaraz.

26an

Kontzertua

Zer: Náyade abesbatzaren eta Marrazki eta Pintura Akademiaren arteko elkarlana.

Non: Junkaleko parrokia.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doako sarrera aforoa bete arte.

Denbora-pasen emaitzak



1	5	2	4	3	8	6	9	7
7	4	9	2	5	6	1	3	8
3	8	6	9	7	1	5	4	2
6	2	1	7	8	4	3	5	9
8	3	5	1	9	2	7	6	4
9	7	4	3	6	5	2	8	1
5	1	3	8	2	9	4	7	6
4	9	7	6	1	3	8	2	5
2	6	8	5	4	7	9	1	3

Bisitak dituzunean Iparra-Txiki Berri da zure aukera!

4 logela zabal bainugela pribatuarekin

Garaiar kalea, 11, Irun - paxioenea@gmail.com - +34 688 728 554